



KRISIAREN EZKUTUKO ALDEA

Ikuspuntu sozioekonomikotik horren txarra izan den urte honen amaieran, Arartekoaren lanaren balantzeak, nahita ez, krisiaren ondorioen inguruan izan dugun eskaera-mordoa jarri behar du arreta. Martxoan Eusko Legebiltzarrari -haren ordezkari gara herritarren eskubideak behar bezala bermatzeko- emango diogun urteko txostenean datu zehatzak eskainiko ditugu, baina egokitzat jotzen dut diru-sarrerarik ez duten edo diru-sarrera gutxi dituzten pertsonen oinarritzko beharrak estaltzera zuzendutako izaera ekonomikoko gizarte prestazioen sistemaren funtzionamenduari buruzko hainbat kontu aurreratzea. Sistema horren prestaziorik garrantzitsuena diru-sarrerak bermatzeko errenta da. Laguntza hori, etxebizitzarako prestazio osagarria bezalaxe, 2011ko abendura arte udaletako gizarte zerbitzuetan eskatzen zen eta foru aldundiek ebatzen eta kudeatzen zuten. 2012. urtearen hasieratik Eusko Jaurlaritzak, Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, hartu izan du horiek kudeatzeko eskumena. Kudeaketa eredu berriaren funtzionamenduan egon den nahasmendu handiak informazio eta laguntza eskaeren eta Arartekoaren aurrean egindako erreklamazioen igoera izugarria eragin du. 884 kexa-espeditente egon dira prestazio ekonomikoko horien inguruan *abenduaren 21era arte*, 2011n 290 eta 2010ean 32 egon ziren bitartean. Era berean, euskal herritarrek gizarte laguntzen inguruan egin dituzten kontsulten hazkundea ikaragarrikoa izan da: une honetan Arartekoaren hiru bulegoetan bideratzen diren arreten % 60 inguruk laguntza horiei dagozkien kontuekin zerikusia dute.

Kexak, prestazioa onartzearekin edo etetearekin loturikoez gain, neurri handi batean Lanbideren funtzionamenduari buruzkoak dira. Gizarte bazterkeriaren esparruan lan egiten duten gizarte erakundeek zein Arartekora jo duten pertsona eta familiek, besteak beste, izapidetzean egondako atzerapen handiak, Lanbideren jardueran akats ugari eragin dituzten aplikazio informatikoen arazoak edo bulego batzuetan egunero arreta jasotzen duten pertsona kopuru mugatua salatu dituzte. Azken horren ondorioz herritarrek goizaldetik jartzen dira errenkadan eta horrek, gainera, ez du bermatzen arreta jasoko dutenik; hori ez da batere ohikoa honelako herrialde batean eta administrazioaren funtzionamendu egokiarekin. Oinarritzko beharrak betetzeko baliabide nahikorik ez izateagatik eta bizitza duina bermatuta ez edukitzeagatik izaera ekonomikoko prestazio publikoak jasotzeko eskubidea duten pertsonak, kudeaketa eredu aldatu aurretik, udaletako gizarte zerbitzuetara jotzen zuten eta gizarte lanean prestakuntza eta bokazioa zuen erreferentziako pertsona bat izaten zuten. Gizarte zerbitzu horiek hurbiltasunari, gizakiekiko arretakalitateari, pertsona bakoitzaren egoeraren ezagutzari eta informazioaren kudeaketari dagokionez eskaintzen zuten ekarpenari buruzko gogoeta bat egitea beharrezkotzat jotzen dugu. Hala eta guztiz ere, Lanbideko langileen arduraz azpimarratu behar dugu, izan ere, neurri handi batean euren lan bolumenak gainezka egiten du, esleituta duen politika aktiboari buruzko eskumenetik sortutako zereginak ere burutu behar dituztelako.



Ez dugu eskatzen berriro ere aurreko eredura itzul gaitzen (kontu hori erabaki politikoko eremuari dagokio guztiz), baina bai prestazio horiek eskatzen dituzten pertsonen arretak izan beharko lituzkeen ezaugarrien dimentsioa kontuan har dadin, izan ere, pertsona horietako askoren profitek gizarte langileen esku-hartzea eta parte-hartzea beharrezkoa bihurtzen dute.

Gure autonomia erkidegoko pertsona askok krisiaren ondorio larriak pairatu ditzakete eta izaera ekonomikoko prestazio ekonomiko bat eskatzeko beharra izan dezakete bizi ahal izateko. Horregatik, garrantzitsua da diru-sarrerak bermatzeko sistema ona izan dezagun. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateko hainbat baldintza bete behar dira, hala nola, gutxienez hiru urtez erroldatuta egon izana. Baldintza horiek bete behar izateak pobreziaren atalasean dauden baliabiderik gabeko pertsona kopuru handia kanpo uzten du. Pertsona horiek, kasu batzuetan, foru aldundien beste laguntzak edo GLL (gizarte larrialdietarako laguntza) eskura ditzakete, edo Gobernu Kanpoko Erakundearen arreta jasotzen dute. Azken horietako boluntarioei ezin izango diegu inoiz behar bezala eskertu premian dauden pertsonen laguntzeko burutzen duten lan itzela eta beharrezkoa. Gizarte dimentsioa duen demokrazia baten printzipio etiko eta juridikoak eta oinarriko eskubideak betetzeko (gizarteratzea, justizia soziala, bizitza duin baterako eskubidea, premiarik gehien dutenekiko laguntza, etab.), herri administrazioek sistema ederto funtzionatzen duela eta lan eske eta, lortzen ez badute, prestazio ekonomikoaren eske doazen pertsonak behar bezalako arreta jasotzen dutela bermatu behar dute. Behar bezalako arreta eskaini ahal izateko beharrezkoak diren bitarteko materialak eta giza baliabide kualifikatuak eskaini behar dira gizarte behar horri zehaztasunez eta azkar erantzuna eman ahal izateko. Ezin dugu ahaztu premian dauden familiek prestazio horiek etxebizitzaren alokairua, janaria, arropa, etab. ordaintzeko erabiltzen dituztela, hau da, Nazio Batuen Erakundeak pertsonak duintasunez bizi daitezen ezinbestekotzat jotzen dituen oinarriko beharrak ordaintzeko.

2013. urtea gogorra izango da eta bereziki krisiaren kolpea pairatu duten edo pairatu behar duten milaka pertsonentzat: norberaren konturako langileak, merkatariak, enpresari txikiak edo langabezia edo ekonomia ezegonkortasun handiko egoeran dauden edo egongo diren profesionalak. Espero dezagun krisi madarikatu hau gainditzea, betiere guztien artean ahalegin eta lan handia eginez eta elkartasunaren gizarte balioak indartuz. Gure ustez, 2013an garrantzi handikoak izango dira honako politika publiko hauek: enpleguari buruzkoak eta beharrak dituzten pertsona eta familientzako prestazio ekonomikoen sistema. Bi tresna horiek txanpon beraren bi aldeak dira eta ahalik eta eraginkortasun eta efizientzia handienarekin funtzionatu behar dute.

Iñigo Lamarca Iturbe

Arartekoa